

BIBLIOPISZINA

Ekainaren 25etik Uztailaren 23ra

15:00etatik 18:00etara

Astelehenetik ostiralera arratsaldeko 15:00etatik 18:00etara liburutegiko zerbitzua igerilekuko berdegunean eskainiko da.



Bertan, erabiltzaile guztiek, liburuak maileguan jasotzeko aukera izango dute; maileguak, erreserbak eta eskaerak bideratzeko gune egokia. Udan erabiltzaileengana irakurketa gerturatzea da garrantzitsua.

Etorri, erabili, irakurri eta ondo pasa bertan dituzun liburuekin.

URETAKO INDUSKETA ARKEOLOGIKOA

Uztailaren 3an

17:00etatik 19:30era



► **PARTE-HARTZAILEAK:**

2007-2009 urte bitartean jaiotako haurrak.

Uluburu itsasontzian ur azpiko indusketa arkeologikoa. Duela ehunka urte hondoratu zen itsasontzi bat arkeologikoki industeko aukera izango duzu ur azpian gelditu ziren objektu eta bitxiak aurkituz eta berreskuratuz. Ondoren aztertu eta sailkatu egingo dira, itsasontziaren historia ezagutzeaz gain primeran pasako duzu.

► **NON:** Agorrosingo Igerilekuan (ordu horretarako haurrak prest egon beharko du igerilekuan). Ezinbestekoa igeri egiten jakitea, bainujantzia, urretako betaurrekoak eta urretako txanoa.

► **IZEN-EMATEA, ARGIBIDEAK ETA BESTELAKOAK:**

Maiatzaren 16tik ekainaren 15era www.laboratorium.eus webgunean UDAKO PROGRAMA atalean. Dohainik.